

Etorkinak eskolan

Título: Etorkinak eskolan. **Target:** Educación Infantil. **Asignatura:** Información docente. **Autor:** Nerea Zabaleta Arangoa, Maestra. Especialidad en Educación Infantil y Primaria., Profesora de Educación Infantil.

KASUA PRAKTIKOAREN DESKRIKAPEN LABURRA

Gaur egun, gero eta etorkin gehiago etorri ohi dira eskoletara. Honegatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu, gai honi heltzea, hainbat informazio emanaz (Irakasleoneko prestakuntza, harrera plana, egokitzapena...) eta hauen hausnarketa eginez.

HIZKUNTZA ETA EDUKIAK INTEGRATZEKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Irakasgai berri bat ikastea ez da soilik gai horren kontzeptuak ikasi behar, baizik eta gai horren hizkuntza eta bere erabilera ere ikasi behar dira. Horregatik, edukiak irakasten ditugunean denok gara hizkuntza irakasleak ikasleentzako jatorrerari erreparatu gabe. Hala ere, hizkuntza berria ikasten ari diren ikasleek estrategia batzuk beharko dituzte hizkuntza garatzeko eta edukiak ulertu ahal izateko

Irakasleak deseroso sentitu daitezke edukiak nahiz hizkuntza irakastea, baina Mohan-ek (1986) gogoarazi zigun bezala, mundu errealean, jendeak hizkuntza eta edukiak batera ikasten ditu, eta irakasleek gauza izan behar dute biok jorratzeko beraien klaseetan. Hizkuntza akademikoa ikasteak hizkuntza akademikoaren erabilpena eskatzen du.

Ezin dugu espero ikasleak klaseetara hizkuntza akademikoan erabat trebatuta heltzea. Hizkuntza eta edukiak uztarturik daudenez, hizkuntza berria ikasten ari diren ikasleei edukiak irakasteko irakasleek ulertu behar dugu ikasleak bizitzen ari diren bigarren hizkuntzaren jabetze-prozesua. Prozesu hau ulertzeak klaseko abiapuntuko hizkuntza identifikatzeko bidea emango du eta irtenbide pedagogikoak aurkitzeko bidea zabalduko du. Bigarren hizkuntza jabetzeari buruzko ikerketak arloko irakasleek kontuan izan behar duten zenbait teoria eta kontzeptu sortu ditu. Hizkuntza jabetzaren printzipio asko zuzenean aplikatu daitezke klaseetan (ulergarritasuna zabaldu, elkareragina gehitu...). Bigarren Hizkuntza ikasteko metodologiek eta teknikak bai edukiak ikastea bai hizkuntzaren jabetza errazten dituzte.

TEORIEK KASU PRAKTIKOAREN INGURUAN ZER ESATEN DUTEN

Ikasle etorkinen integrazioa ikastolan

Ikasle etorkinen harrera plana ekintzak aurrera eraman ahal izateko protokolo bat da eta ikasle berriaren egokitzapena du helburutzat, kulturantzatasunean (interkulturalitatea) oinarrituz.

Harrera plana, hezkuntza etapa guztietan ezartzen da, derrigorrezko heziketa eta ez derrigorrezkoan.

Plan hau, ikastetxeko proiektu kurrikularrean (IPK) gehitzen da, helburuak, eduki kurrikularrak, ebaluaketa irizpideak, egokitzapen soziala, jarrerazkoa ... dituelarik. Atal hauetan, erreferentzia multikulturalak txertatzen dira, hizkuntza egokitzapen eta behar kurrikularrak (HIPI) ebazteko estrategiak ditu, norbanakoaren plana eratzeko modelo basiko bat sortzen da, esku hartzeko oinarritzko irizpideak erabakitzen dira ...

Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasle etorkinen kasurako, ikasgelarako esku hartze espezifikoak finkatzen dira, ikasle etorkina eta gainontzeko ikaskideek integrazioa errazteko, eta irakasleekiko harremana jorratzeko.

Ikasle etorkinentzako harrera plana egitea ikastetxeko Koordinazio Pedagogikoaren Komisionaren ardurua da, ikastetxean dauden koordinazio talde guztien batasunarekin (klaustroak, departamentu desberdinak, tutoreak, hezitzaile taldeak ...) Honela, erabakiak adostuko dira eta esku hartze kulturala burutu ahal izateko aldaketak ezagutuko dira. Azkenik, ikastetxeko Batzorde Orokorrak eta Zuzendaritzak onartu beharko du eta ikastetxeko talde multiprofesional guztiei helaraziko zaie.

Ikasle Etorkinen Harrera Plana

Gure erkidegora gero eta etorkin gehiago iristeak eta gure lurraldean hainbat mendetatik bizi diren gutxiengo kulturalak egoteak erronka berriak planteatzen dizkio gure hezkuntza-sistemari. Horrez gain, hezkuntza berritzatzeko ildoak jarri behar dira abian, eta eskola kultura arteko dimentsiorako nola prestatuko den jorratu behar da. Horren bitartez, kultur pluraltasuna hain nabaria den mundu batean ikasle guztiak aurrera egiteko nola prestatu behar diren aztertuko da. Dena den, lehenetasunez euskal kulturaren berezko balioak garatuko dira.

Ikastetxean dagoen aniztasunaren osagaietako bat osagai kulturala da, hau da, balio multzoak, errealitatea ulertzeko eta errealitatera egokitzeko moduak, ohiturak, antolamendua, espazioaren eta denboraren egituraketa, botere-erlazioak, elkarreragiteko jarraibideak eta arau aldakorrak.

Erantzun egokia eman ahal izateko eta ikasle guztiak barne hartu eta parte hartu ahal izateko, alderdi komunak eta desberdintasun kulturalak eta pertsonalak hartu beharko dira kontuan. Hortaz, ikasleetako bakoitzaren eta bertan dauden taldeen ezaugarri, interes eta premiei erantzun beharko die eskolak, eta ikasle orok gaitasun guztiak -gaitasun komunak zein bereaien gaitasun bereizgarriak- garatzeko duen eskubidea errespetatu eta indartu beharko da. Aniztasun hori faktore aberasgarria izango bada, berdintasunaren, elkarrizketaren eta trukearen ikuspegitik planteatu beharko da aniztasuna. Hala eginez gero, ez da ikasle bat edo talde bat beste baten barruan integratu behar, ez da ikasle bat edo talde bat egokitu behar; aitzitik, guztiak integratu beharko dute eskola-taldean, bakoitzak bere bereizitasunak, ikuspuntuak, ohiturak, balioak, ezaugarriak eta alderdi komunak gaineratu beharko ditu, eta, hala, talde hori hurbildu eta kohesionatu egingo da.

- Eskolak garapenerako ingurune eta bitarteko egokiak eskaini beharko ditu, guztiak sartzen diren eskolaren ikuspegitik. Era berean, eskolak berak ikaskuntza arrakastatsua errazteko sortzen dituen oztopoak baztertu beharko dira.
- Desberdintasunerako errespetua, eta eskubide eta aukeren berdintasuna uztartuko dituzten estrategiak bilatu behar dira, eta taldeen arteko elkarbizitza eta elkarrizketa sustatu beharko da.
- Gutxiengoen kultura eskolara hurbiltzeak ikasgelako jarduna berriro planteatzea eskatzen du, eta horrek hezkuntza-jardueraren elementu guztietan eta curriculumaren funtsezko elementuetan eragina izango du.
- Planteamendu orokorra egin beharko da, ikastetxearen bizitza osoan eragina izango duen planteamendua.
- Planteamendu orokor hori kultura arteko ikuspegitik abiatuta egin beharko da, eta bertatik berraztertu beharko dira balioak, estrategiak eta helburuak.

Horrenbestez, hezkuntza-administrazioa -hezkuntza kudeatzeko irizpideen bitartez-, irakaskuntza, tutoretza eta laguntzarako eragileak, eta erkidegoaren beraren beste eragile batzuk inplikaturako dituzten ekintzak bideratu beharko dira.

Ildo horretan, honako alderdi hauek jorratuko dira: irakasleen prestakuntza-prozesuak nabarmentzea; hezkuntza-erantzun aberatsa planteaturako duten hezkuntza eta curriculumeko proiektu inklusiboak sustatzea; hizkuntza indartzeko baliabideak hornitzea; atzerriko ikasle etorkinak euskal kulturaren sar daitezkeen bultzatzea; gure gizartean dauden beste kultura batzuen elementuak curriculum-proiektuetan sartzea, horiek hobeto ezagutu eta baloratzeko eta aurreiritziak eta estereotipoak arbuizatzeko; familiak eta eskola inplikatzea, ikasle etorkinek eta gutxiengoaren kulturetako familietako ikasleek eskolan arrakasta lortzeko proiektuetan; laguntza pertsonalak eta ekonomikoak ematea, eta abar.

Ikasle etorkinen eskolaratze prozesua

Ikasle etorkinak hezkuntza sisteman barneratzean, hainbat behar edo premia sortzen dira:

Harrerako gizartearen kultura ezagutzeko eta horri egokitzeko ikasleak duen beharra: jatorrizko ingurune kulturalean ikasitakoa eta ona etortzean, eskolaren irudia eta gizartean aurkitzen duena oso ezberdinak izan daitezke. Denbora eman behar diegu hau bereganatzeko eta guk ere ahaleginak egin behar ditugu eskolaren eta familiaren ikuspuntu ezberdinak argitzeko eta ulertzeko. Era horretan, denok aberastuko gara kulturen arteko elkarrizketen bidez.

Ikasle etorkinaren kultura eta hizkuntza baloratzeko dagoen beharra: ikasleak sentitu behar du bera, bere jatorrizko kultura eta hizkuntza onartzen eta baloratzen dugula. Horrek garrantzi handia du norberaren irudi positiboa eraikitzeko, eta hemengo kultura eta hizkuntza onartzeko jarrera ona izateko ere.

Hemengo hizkuntzak ikasteko ikasle etorkinak duen beharra.

- Ikaslearen integrazioa lehenengo unetik zaindu beharra: ikasle berriak etortzen diren momentutik integrazioa bideratu dugu eta desberdintasunen aurrean sor daitezkeen gatazkak eta baztertzak gainditzeko lagundu behar diegu.
- Ikaste prozesuari gertutik jarraitu beharra: haurren aurrerapen, oztopo edo zailtasunak aztertuko ditugu eta horiek gainditzeko behar duen laguntza eskainiko diegu.
- Ikasle guztiei kulturarteko hezkuntza eskaini beharra: aberasgarria da gelan kultura ezberdinak egotea. Aukera eman behar diegu ikasle guztiei kultura ezberdinak ezagutzeko, baloratzeko.

Ikasle etorkinen egokitzapena ikasgelan

- Lehenengo astean elkar ezagutzeko jolasak antolatu.
- Ikaskide/lagunak izendatu.
- Hitz, esaldi arruntak erakutsi: egunon ... ikastolarekin lotura dutenak (gela, komuna, andereño, jolaslekua ...)
- Gelan munduko mapa jarri eta bere lurraldea kokatzen ikasi.
- Tolerantzia eta kooperazio gaiak jorratu modu desberdinetan adinaren baitan.
- Interkulturalitatea jorratu

- Role- playing edo bestelako teknika dinamizatzailak erabiliz, arrazakeria eta hala moduko gaiak jorratu.
- Entzute aktiboa landu.
- Hezkuntza interkulturalak dituen helburuak lortzeko, arlo akademiko guztietan edukiak bereiztu eta bereziki landu.

Ikasle etorkinen harrerarako estrategiak

- **-Ikasleak arrakasta lortuko duelako konfiantza adieraztea eta zuzenean esatea izango da jarrera orokorra.** Batez ere kontrakoa ez genuke inoiz egin behar.
- **-Entzute aktiboa praktikatuz, entzundakoa beste era batera esanez,** ea ondo ulertu duen egiaztatuz ... Zenbait kasutan (marokiarren kasuan adibidez, ariketa sistematikoak egin beharko lirateke, behin eta berriz parafrasiak egin ...) Ikasleak ikasi behar dute testuko ideiak beste era batera ere adierazi daitezkeela, hitzez hitz errepikatu gabe.
- **-Irakaslearen eta ikasle bakoitzaren arteko harremana sendotuko duten sariak erabili.** Adibidez, ordenagailuz idaztea saria izan liteke askorentzat, irakasleak "lagundu" esatea, irakaslearen laguntzaile izatea fotokopiak banatzerakoan ...
- **-Ikaslearen hizkuntzaz eta kulturaz balorazio positiboa egin.** Euren izenak eta beste hitz batzuk euren hizkuntzan idatzi (txineraz, arabieraz, portugesez, errumanieraz ...) Funtsezkoa da haien kulturarekiko interesa erakustea; nongoak diren, zein izen ematen dioten euren hizkuntzari, euren herriari ...
- **-Euren hizkuntzaz erabiltzen diren zenbait esamolde ezagutu.** Hiztegi minimo bat ere eduki/ jakin beharko genuke, hala nola: agurrak eta harrera hiztegia (egunon, arratsaldeon, ongi etorri, eskerrik asko ..) ohiko esamolde bat, euren jaien izenak, janariak ...
- **-Ikasleek dituzten zailtasunak aintzat hartu** eta euren ez den hizkuntza batez jabetzeko dituzten eragozpenez jabetu. Batez ere, kontziente izan behar dugu eta enpatia erakutsi: zailtasunik handienak hizkuntza aldetikoak direla kontuan izanik, ariketa interesgarria litzateke gu euren hizkuntza ikasten saiatzea.
- **-Ikaslearen hizkera ez barregarri utzi besteen aurrean,** hizkuntza zuzena izan ez arren. Akatsak zuzendu bai, tokatzen denean, eta tokatzen direnak baino ez. Baina besteen aurrean, kontuz taldean dagoenean, besteen barreak, zirikadak... saihestuz.
- **-Kultura minorizatua edo berari buruzko zenbait aspektu (etorkinen jatorrizko hizkuntza) programazioetan sartu:** janariak, jaiak, erlijioak ... Benetako hausnarketa bat egin behar da ikasgelako curriculum arrunta goitik behera berrikusteko. Amara Berriko "Ni Bezelako Haur Bat" izeneko jardueraren antzeko edukiak landu, "Familias del Mundo" El Pais, "Kulturarteko Asteak" antolatu (janaria, hizkuntzak, jai ohiturak ...) ...
- **-Hizkuntza gutxituen presentzia sustatu** horma irudietan, errotulazioan ... Horretarako gurasoak ere anima daitezke kartelak egiten (zorionak, urte berri on, oporrak ondo pasa, lanak eta ahaleginak fruitu ona ekartzen dute ...) Jolasak ere antolatu litezke.
- **-Ikasleak nekazal girotik edo hirigunetik datozen kontuan hartu,** horrek baldintzatu egin baititzake kultur erreferentziak eta bizimodua bera ere (ordutegiak, ohiturak). Hasieran, jolas manipulatioak gehiago erabili eta liburu eta fitxa gutxiago.

Ez ahozko estrategiak:

- **Keinuen esanahai desberdinak kontuan hartu.** Kontaktu fisikoa (buru gainetik eskua pasatzea lasaigarria izan liteke batzuentzat, aztoratu egin ditzake beste kultura batzuetakoentzat...), distantzia fisikoak, begietara zuzenean begiratu, esaerak eta tonuak... Posible den neurrian, aldez aurretik jakin beharko genituzke talde desberdinetako jatorrizko kulturetako komunikazio eta harreman kodeak.
- **Onartzeko eta baieztatzeko adierazpen keinuak irakatsi.** Era berean, baita gaitzesteko eta ukatzeko edo arbuiatzeko, nahigabea adierazteko ... ere.
- **Keinu ugari erabili, eskuen bidez, plantak egin, objektuak erakutsi** Argazkiak eta irudiak oso erabilgarriak izaten dira famiari buruz hitz egiteko, jatekoak, paisaiak eta abar lantzeko aukera ematen baitute. Hala ere, batzuek argazkiak eskolara ekartzeko eragozpenak izaten dituzte (ez daukate, gurasoek ez dute nahi, zerbaiten beldur edo mesfidantza, euren intimitatea gorde nahia)

Ahozko estrategiak:

- **Ikasleari zuzenean hitz egin,** bitartekaririk erabili gabe eta izena aipatuz.
- **Txarto uler daitezkeen esamoldeak ez erabili.** Argi eta garbi hitz egin eta hezkidetzaz hiztegia hasieratik bertatik kontuan hartu.
- **Esaldiak eta baieztapenak beste era batera errepikatu.** Behin eta berriz errepikatu ideiak, parafrasiak, ulermena finkatu edo ulertu ez duelako zalantza izanez gero.
- **Fonetika eta fonologia egokitu.**
- **Morfosintaxia** erraza eta ulerterraza bideratu.
- **Semantika** behin eta berriz errepikatu, parafrasiak erabiliz eta ikaslea deseroso sentitu gabe.
- **Elkarrizketa** ikaslearen ulermen mailara egokitu, hiztegi sinplea erabiliz, esaldi motzak ...

Prozedurazko estrategiak:

1. Errealitatean oinarritutako ekintzen bidez ikasi.
2. Eginkizunari buruzko orientabide argiak eman.
3. Zereginak sekuentziatu.
4. Hitz ezagunen kopurua kontrolatu.
5. Ikasketa bizkortu "Eredu bidezko ikaskuntza"ren bidez.
6. Estereotipoak saihestu.
7. Esanguratsuen diren pertsonaiak ager daitezen saiatu.
8. Kulturen arteko antzekotasunak nabarmendu.
9. Ikasleei erronka intelektualak planteatu.

Ikasle etorkinen hezkuntza premia bereziak

Ikaskideekiko integrazioa

1. Gelako kideak beren izenaz ezagutzea eta behar bezala ahoskatzea.
2. Bere burua nahiz bere kultura eta hizkuntza baloratuta sentitzea. Ikasle etorkinaren jatorrizko hizkuntza, kultura, herria, erlijioa, ohiturak ... landu eta gelakideei azalpen txiki baten bidez ezagutaraztea.
3. Euskal Herriko kultura (musika, artea, jolasak, ospakizun bereziak ...), ohiturak ... ezagutu eta ulertzeko jarduerak didaktikoak erraztea.
4. Ikaslearentzat egokitutako material didaktikoa eskura jartzea eta ulertu ahal izateko beharrezko laguntza eskaintzea (ikasgela barruan edo laguntza gelan).
5. Ikasle etorkinaren egoerarekin enpatizatzea eta beharrezkoa ikusten den guztietan, berarekin hizketaldiak egitea.
6. Ikaslearen adinaren arabera mugaturik, *gizarte integratzailearen* funtzioa zein den eta zertarako gauden azalduko zaie ikasleei, lehen unetik argi izan dezaten zein den gure jardueraren helburua..
7. Ikasle etorkinak gelakideekiko tolerantzia, kooperazioa eta errespetua lortzea, **eta alderantziz**. Arrazakeria eta jarrera xenofoboak saihestea eta beharrezko denean esku hartze aktiboa egitea.
8. Uneoro ikaslearen motibazioa sustatu ikastolara etortzeko eta bertan ekimenez jarduteko. Ikaslearen **autoestima** funtsezko elementua da bere integrazioan.

Curriculumaren egokitzapena

1. Komunikatzeko **gaitasun linguistiko** minimo bat lortzea eta irakurketa- idazketa eta matematikarako oinarriak eskuratzea.
2. **Irakurketa eta idazketaren** ikaskuntza ahozko hizkuntzarekin batera garatzea.
3. Ikaskuntzaren oinarria **ulermena** izatea.
4. **Ingurune alfabetatu** aberatsa eskaintzea.
5. Ikaslearekin irakurketa burutzea.
6. **Helburu bat duen ikaskuntza** egoerak sortzea.
7. Ikaslearen **ama hizkuntzan** irakurri eta idazteko aukera ematea, gainontzeko kideei ere erakutsiz.

Bi egoera bereiztu behar dira:

“Irailean, guztiekin batera eskolaratzen denean”

Ohiko prozesua:

- Hasieran talde txikietan eta txandaka sartu.
- Ordu batzuk besterik ez eman.
- Ama gertu egoteko aukera eman...

Hala ere gauza batzuk kontuan hartu:

- Behar izanez gero, gurasoekin elkarrizketa indibidualak izan.
- Jarrera hurbila eta irekia azaldu.
- Informazioa dosifikatu, ez eman informazio gehiegi.

“Ikasturtean zehar iristen denean”

- Ikasle berriaren harrera prestatu: gainerako ikasleei aurrez adierazi izena, jatorria, hizkuntza...
- Ikaslearen egokitzapena erraztu: Familiarekin negoziatu: hasierako egunetan patioa bakarrik ekartzea, goiz edo arratsalde bakarrik...

Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan

Irakasle askok, teorian, argi dugu ikasle horiek beste ikasleekin batera ikasi behar dutela integrazioa lortzeko; baina, praktikan, oztopo ugari daude tartean, integrazio hori bideratzeko. Eta hemengo kasuan, bi hizkuntza ikasi beharrak ez du lana inolaz ere errazten. Gure artean, ikasle horien eskolatzeak eztabaida eta kezka sortu du, eta, batez ere, ikasleak Lehen Hezkuntzako azken ziklora edo Bigarren Hezkuntzara heltzen direnean.

Beste etapetan zailtasunak handiak direnez, aipamen gutxi topa daiteke “Haur Hezkuntza eta ikasle etorkinak” gaiari buruz. Egia da Haur Hezkuntza —horrek daukan egiturari eta metodologiari esker— etaparik errazena dela ikasle etorkinak integratzeko; egia da haur txikiak —Haur Hezkuntzako umeak— nagusiak baino hobeto moldatzen direla egoera berrietan; egia da hemen jaiotako ikasleak antzeko egoeran daudela, beraiantzat ere eskola egoera berria baita. Baina, hala eta guztiz ere, ikasle atzerritarren integrazioak arreta berezia eskatzen digu, Haur Hezkuntzan ere ahal den modurik hoberenean gerta dadin. Ikasle guztientzat Haur Hezkuntzako etapa ondo, zoriontsu egitea garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa da ikasle etorkinarentzat eta haren familiarentzat, harrera-gizartean integratzeko lehen urratsa izan daiteke-eta. Horregatik, gure jarrera beharrezkoa da egoera berri horri aurre egiten diogunean.

Irakasleok maiz, hainbat pentsamendu darabilzkigu buruan:

- “Nola moldatuko naiz beraiekin hitz egiteko, elkar ulertzen ez badugu?”
- “Auskalo nondik datorren eta zer ohitura dituen!”
- “Nahikoa daukat hemengoekin, gela ia beteta dudalako, eta orain hau?”
- “Zein interesgarria, orain arte ez dut horrelako esperientziarik izan!”
- “Jakin banekien familia asko etortzen ari direla auzora. Auzoan dagoena eskolara heldu da.”
- “Kanpoko ume bat nire gelan jarri dute, lankideari galdetu beharko diot ea berak zer egin zuen tokatu zitzaionean.”

Galdera hauek denok izan ditzakegu buruan eta den-denak dira zilegiak. Ikastetxe batzuetan, tutoreak berak moldatu behar izan du, besterik gabe, ume berria gelara heldu denean. Baina egokia litzateke irakasle guztion lana izatea ikasle horien egokitzapena edo eskolatzeko prestaketa eta denon artean adostutako erabakiak hartzea.

